EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

## 2009KO URRIAREN 22KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

Gai-zerrendako lehenengo puntua: **Lehenbailehen eztabaidatzeko Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, abiadura handiko trenaren Bergara-Bergara tramoari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0114]**

EA-NV eta ES taldeek onetsitako erdibideko zuzenketa onetsia
34. zk.

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Urgentziaz, nahitaezko desjabetzeari buruzko espedientearen tramitazioa hasi aurretik, Eusko Jaurlaritza bil dadila Bergara-Bergara tramoaren ibilbideak kaltetutakoen ordezkaritza batekin.

2. Bilera hori bidera dadila 2008. urtearen hasierako ibilbidearen gaineko adostasunari heltzera, betiere ibilbide hori atzerapenik gabe eta behar den segurtasun juridikoarekin gauzatu badaiteke".

Gai-zerrendako bigarren puntua: **Mozioa, Jesus M. Larrazabal Antia Mistoa-Eusko Alkartasuna taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Falange y Tradición talde ultraeskuindarrak eginiko erasoen eta mehatxuen aurka hartu edo hartuko dituen neurriei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0009]**

ES eta Mistoa-UPyD taldeek onetsitako erdibideko zuzenketa onetsia

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL 22 DE OCTUBRE DE 2009

Punto primero del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley para su debate urgente formulada por el grupo parlamentario Nacionalistas Vascos, relativa al tramo Bergara-Bergara del tren de alta velocidad. [09\11\02\01\0114]**

Aprobada enmienda transaccional suscrita por los grupos NV y SV
n.º 34

"El Parlamento Vasco solicita al Gobierno Vasco:

1. Que con carácter de urgencia, antes del inicio de la tramitación del expediente de expropiación forzosa, el Gobierno Vasco se reúna con una representación e los afectados, por el trazado del tramo Bergara-Bergara.

2. Que el encuentro vaya encaminado a retomar el consenso del trazado de comienzo del año 2008, siempre que el mismo pueda ejecutarse sin retrasos y con la correspondiente seguridad jurídica".

Punto segundo del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Jesus M. Larrazabal Antia, parlamentario del grupo Mixto-Eusko Alkartasuna, sobre las medidas que se han adoptado y se adoptarán en contra de los ataques y amenazas del grupo ultraderechista Falange y Tradición. [09\11\03\00\0009]**

Aprobada enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y Mixto-UPyD

"1. Eusko Legebiltzarrak, terrorismo totalitarioaren gaitzespenarekin eta Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legearen espirituarekin bat eginez, arbuiatu egiten ditu Falange y Tradición talde ultraeskuindarrak burutu dituen eraso eta mehatxuak, eta babesa eta elkartasuna adierazten die eraso horien biktimei.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eskatzen dio jarrai dezala, neurri finko eta eraginkorrekin, atxilotzen eta Justiziaren esku jartzen euskal gizartearen gehiengo zabalaren sentsibilitate demokratikoa iraintzen duten ekintza horiek burutzen dituzten pertsonak".

"1. El Parlamento Vasco, en coherencia con su repulsa al terrorismo totalitario y con el espíritu de la ley de Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo, rechaza los ataques y amenazas del grupo ultraderechista Falange y Tradición, al tiempo que muestra su apoyo y se solidariza con las víctimas de estos ataques.

2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Interior del Gobierno Vasco a seguir actuando, con medidas firmes y efectivas, para que se pueda detener y poner a disposición de la Justicia a quienes perpetran estas acciones que ofenden la sensibilidad democrática de la inmensa mayoría de la sociedad vasca".

Gai-zerrendako hirugarren puntua: **Mozioa, Iñaki Oyarzabal de Miguel Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak matrikulazio-politika dela-eta iragarri dituen aldaketei buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.[09\11\03\00\0010]**

Punto tercero del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Iñaki Oyarzabal de Miguel, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a los cambios anunciados en la política de matriculación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. [09\11\03\00\0010]**

ES, ETP eta Mistoa-UPyD taldeek onetsitako erdibideko zuzenketa onetsia

"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio aurkez ditzala, matrikulatzeko epea ireki baino lehen, matrikulazio-prozesuan hartu beharreko neurriak eta egin beharreko aldaketak, familiek hizkuntza askatasunez aukeratuko dutela bermatzeko eta ikastetxea aukeratzeko mekanismoa optimizatzeko".

Aprobada enmienda transaccional suscrita por los grupos SV, PV y Mixto-UPyD.

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación a presentar, antes de la apertura del periodo de matrícula las medidas necesarias y las modificaciones a adoptar en el proceso de matriculación, a fin de garantizar la libertad de elección lingüística de las familias y de optimizar el mecanismo de elección de centro educativo".

Gai-zerrendako laugarren puntua: **Mozioa, Mikel Basabe Kortabarria Aralar taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, herritarrek Administrazioarekin dituzten harremanetan hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea Ertzaintzarekiko harremanetan ere bermatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0011]**

Punto cuarto del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Mikel Basabe Kortabarria, parlamentario del grupo Aralar, relativa a garantizar también en las relaciones con la Ertzaintza el derecho de la ciudadanía a elegir en sus relaciones con la Administración la lengua oficial que desee. [09\11\03\00\0011]**

EA-NV, ES, Aralar eta Mistoa-UPyD taldeek onetsitako erdibideko zuzenketa onetsia

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorrean artikula ditzala beharrezkoak diren neurriak, arian-arian Euskadiko herritarrek Administrazioarekin dituzten harremanetan hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko.

2. Eusko Legebiltzarrak Herrizaingo Sailari eskatzen dio Ertzaintzako patruilak antolatzeko irizpideetako bat patruila horietako kideetako batek bi hizkuntza ofizialak ezagutzea izan dadila, betiere Ertzaintzaren barneko antolaketak hori ahalbidetzen badu".

Aprobada enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV, Aralar y Mixto-UPyD

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el seno de la Comisión Permanente de las Lenguas Oficiales, articule las medidas necesarias para que, de forma progresiva, se garantice el derecho de los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi a relacionarse con la Administración en la lengua oficial de su elección.

2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Interior a que, uno de los criterios a la hora de organizar las patrullas de la Ertzaintza, sea que uno de sus miembros conozca las dos lenguas oficiales, siempre que la propia organización interna de la Ertzaintza lo permita".

Gai-zerrendako bosgarren puntua: **Mozioa, Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Berdintasunerako Legea betearazteko neurriak hartzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\03\00\0012]**

EA-NV, ES, ETP eta Aralar taldeek onetsitako erdibideko zuzenketa onetsia

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehenbailehen bete dezala Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 26. artikuluak dioenarekin, bai eta legearen beraren garatze eta betetzearekin.

2. Eusko Legebiltzarrak Espainiako gobernuari eskatzen dio bete dezala martxoaren 22ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 23/2007 Lege Organikoarekin betearazteko".

Punto quinto del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D.ª Aintzane Ezenarro Egurbide, parlamentaria del grupo Aralar, relativa a la toma de medidas para hacer cumplir la Ley para la Igualdad. [09\11\03\00\0012]**

Aprobada enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV, PV y Aralar

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a proceder cuanto antes al cumplimiento del artículo 26 de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres, así como el desarrollo y cumplimiento de la misma.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de España a proceder al cumplimiento de la Ley Orgánica 23/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres".

Gai-zerrendako seigarren puntua: **Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, sexu-harremanetan jokabide arriskutsuetatik gorde beharraz kontzientziatzeko, gazteentzako eta nerabeentzako kanpaina espezifikoak antolatzeko beharrari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0032]**

Punto sexto del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, sobre la necesidad de campañas específicas de concienciación para jóvenes y adolescentes a fin de prevenir conductas de riesgo en las relaciones sexuales. [09\11\02\01\0032]**

EA-NV, ES, ETP, Mistoa-EA eta Mistoa EB taldeek onetsitako erdibideko zuzenketa onetsia
35. zk.

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatzen dio –gazteria arloko gaiak berari dagozkionez– eta orobat Osasun Sailari eta Hezkuntza Sailari, informazio-kanpaina espezifikoak diseinatu, bultzatu eta egin ditzatela, gainerako instituzio publikoekin koordinaturik eta hiesaren aurkako borrokan diharduten elkarteekin eta arrisku-taldeekin elkarlaneanarituz, gazteak eta nerabeak sentsibilizatu eta kontzientziatu daitezen beren sexu-harremanetan preserbatiboak eta antisorgailuak erabiltzeak duen garrantziaz, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunei eta nahi gabeko haurdunaldiei aurrea hartzeko.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bidal ditzala Ganbera honetara II. Gazte Planak (2002-2005) izan duen eraginari buruzko ebaluazioaren emaitzak. Halaber, egin dezala III. Gazte Plana, eta horren xede nagusia izan dadila balioak sustatzea nerabe eta gazteen artean, genero-roletan jokabide positiboak bultzatzen dituztenak bereziki, eta lehentasunezko ekintzen artean sar dezala jokaera eta praktika seguruak sustatzea, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunei eta nahi gabeko haurdunaldiei aurrea hartzeko".

Aprobada enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV, PV, Mixto-EA y Mixto-EB

n.º 35

"1. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Cultura del Gobierno vasco, que tiene atribuidas las materias de Juventud, al Departamento de Sanidad y al Departamento de Educación a diseñar, impulsar y realizar, en coordinación con las demás instituciones públicas y en colaboración con las asociaciones de lucha contra el sida y de colectivos de riesgo, campañas informativas específicas para jóvenes y adolescentes que sensibilicen y conciencien de la importancia de usar preservativos y anticonceptivos en sus relaciones sexuales para prevenir enfermedades de transmisión sexual y embarazos no deseados.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno vasco a remitir a esta Cámara los resultados de la evaluación del impacto del II Plan Joven 2002-2005 y a elaborar el III Plan Joven, que contemple como objetivo fundamental promover el desarrollo de valores en los/las adolescentes y jóvenes, especialmente los que promuevan conductas positivas en roles de género, y entre sus acciones prioritarias el fomento de comportamientos y prácticas seguras para la prevención de enfermedades de transmisión sexual y embarazos no deseados".

Gai-zerrendako zazpigarren puntua: **Euskal Legebiltzar Talde Popularrak egindako legez besteko proposamena, gizarte-ekonomiaren gaineko Jaurlaritzaren jakinarazpenari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0035]**

Punto séptimo del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a comunicación del Gobierno sobre economía social. [09\11\02\01\0035]**

EA-NV, ES, ETP eta Mistoa EB taldeek onetsitako erdibideko zuzenketa onetsia
36. zk.

"1. Eusko Legebiltzarrak aintzat hartzen du, eta Eusko Jaurlaritzari ere eskatzen dio aintzat har dezala, mugimendu kooperatibistaren

Aprobada enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV, PV y Mixto-EB
n.º 36

"1. El Parlamento Vasco reconoce e insta al Gobierno Vasco a reconocer la relevancia del movimiento cooperativista, así como del

garrantzia, baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako gainontzeko eragileena ere, horiek guztiak gizarteko solaskide nagusiak baitira.

2. Eusko Legebiltzarrak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari eskatzen dio hurrengo HAMABI hilabeteetan txosten edo adierazpen bat egin eta Ganberara bidal dezala. Txosten edo adierazpen horretan, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiak esango duena kontuan izanda, kooperatiben sektorearen eta gizarte-ekonomiako beste erakundeen egoerak aztertuko dira, irabazasmorik gabeko sektorea edo hirugarren sektorea ere barne hartuta. Gainera, arauak egokitu edo aldatzeko beharra aztertuko da, eta Euskadiko gizarte-ekonomia garatu eta sustatzeko ildo estrategikoak ere ezarriko dira".

resto de agentes de la Economía Social en la Comunidad Autónoma Vasca, y su notable importancia como interlocutor social.

2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales a que elabore y envíe a la Cámara para su estudio y debate, en los próximos DOCE meses, un Informe o Comunicación, que atendiendo las oportunas aportaciones del Observatorio Vasco de Economía Social, analice la situación del sector cooperativo y de las demás entidades de la Economía social, incluyendo entre las mismas el sector no lucrativo, también denominado tercer sector; se estudien las necesidades de adaptación o modificación normativas, y se establezcan las líneas estratégicas para el desarrollo y el impulso de la Economía Social en Euskadi".

Gai-zerrendako zortzigarren puntua: **Aralar legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, telefonia mugikorreko azpiegiturak ezartzeko legeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0037]**

EA-NV, ES eta ETP taldeek onetsitako erdibideko zuzenketa onetsia
37. zk.

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio arretarik handienaz jarrai ditzala eremu elektromagnetikoek osasunean duten eraginaren inguruko ikerketa berriak, beste erakunde batzuekin elkarlanean arituz gai honetako ekimenetan.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bidal diezazkiola Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Batzordeari bai egindako bai aurrerantzean egingo diren txosten zientifikoak Ingurumen eta Osasunerako Europar Ekintza Planaren esparruan.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, jarraipen horren emaitzen ondorioz, dagokion eran joka dezala, betiere eremu honetan lege-garapena bazterreratu gabe, osasuna babestearen alde eta gizartean asaldurarik sortu gabe".

Punto octavo del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Aralar, sobre una ley para la instalación de infraestructuras de telefonía móvil. [09\11\02\01\0037]**

Aprobada enmienda transaccional suscrita por los grupos NV, SV y PV
n.º 37

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir, con la máxima atención, las nuevas investigaciones en torno al impacto en la salud de los campos electromagnéticos, colaborando con las iniciativas de otras instituciones en esta materia.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a remitir a la Comisión de Industria, Innovación, Comercio y Turismo los informes científicos realizados y los que se realicen en el futuro, en el marco del Plan de Acción Europeo de Medio Ambiente y Salud.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en virtud de los resultados de ese seguimiento, actúe en consecuencia, sin descartar el desarrollo legal en este ámbito, en favor de la protección de la salud sin alimentar el alarmismo social".

Gai-zerrendako bederatzigarren puntua: **Mistoa-Eusko Alkartasuna legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, presoek Euskal Herriko Unibertsitatean ikasteko duten eskubidea bermatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0039]**

ES eta ETP taldeek onetsitako erdibideko zuzenketa onetsia
38. zk.

"Eusko Legebiltzarrak:

1. Onuragarri deritzo UNED Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak egindako lanari —Espainiako lehenengo unibertsitatea, hain zuzen, ikasle kopuruan—, eta aintzakotzat hartzen du irakaskuntza ez-presentzialean duen esperientzia luzea.
2. Aditzera ematen du UNEDek beharrezko baldintzak betetzen dituela eta behar adina berme eta bitarteko badauzkala presoek beren ikasketak egin ahal izan ditzaten.
3. UNEDi eskatzen dio abiaraz ditzala beharrezko prozedurak goi-irakaskuntza Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan eskaintzeko".

Punto noveno del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Eusko Alkartasuna, sobre la garantía del derecho de las personas presas a estudiar en la Universidad del País Vasco. [09\11\02\01\0039]**

Aprobada enmienda transaccional suscrita por los grupos SV y PV
n.º 38

"El Parlamento Vasco:

1. Valora positivamente la labor realizada por la Universidad Nacional de Educación a Distancia (UNED), la primera universidad de España por número de estudiantes, y reconoce su dilatada experiencia en la enseñanza no presencial.
2. Manifiesta que la UNED reúne las condiciones necesarias y aporta las garantías y medios suficientes para que la población reclusa pueda cursar sus estudios.
3. Insta a la UNED a iniciar los procedimientos necesarios para ofertar la enseñanza superior en las dos lenguas oficiales de Euskadi".

Gai-zerrendako hamargarren puntua: **Mistoa-Ezker Batua Berdeak legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena, Zabalgarbi errauste-planta kautelaz gelditzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [09\11\02\01\0044]**

Ezetsi egin da.

Punto décimo del orden del día: **Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Mixto-Ezker Batua Berdeak, relativa a la paralización cautelar de la incineradora de Zabalgarbi. [09\11\02\01\0044]**

Rechazada.